

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

519. zka.

XIII. urtea

2005eko otsailaren 25a



**Morkaikorekin
txokorik ederrenak ezagutuz**



Zure logela aukeratzekoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.
Gure erakusketa bisita ezazu!



**15
URTEKO
BERMEA**



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.




**10
URTEKO
BERMEA**

Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu. %50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU



**5 URTEKO
BERMEA**



funda aldagarria
30° tan garbikorra



Latexeko xafla bi aurpegietan. 5 dentsitate ezberdinekin. Akaroen, onddoen eta bakterien kontrako Maestersan tratamendua kanpoko zorroan.

LAGUNAK

12 hilabetetan ordaindu dezakezu

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



IBAN URIZAR

Mikele maitia!!

Badakizu futbol zalea ez naizela. Zeuk bezala, neuk ere igandeko hasperen horien tartean putofubol bat botatzen dut, eta ez nire ekipoak galdu duelako.

Igandetan barraz bestalde egoteak badu ordu kritiko bat, 17:00ak. Ordu honetan hasten dira normalean partiduak, Erreala, Atletik, Bartzelona,... Happy hour bat izango balitz bezala gerturaten da jendea tabernetara pantaila bila. Lagun arteko momentuak dira hala ere, antropologo batek neurtzeko komunitate gisako panorama, benetan. Hizkuntza arrotz bat erabiltzen dute jokalarien mugimenduak deskribatzeko. Trantzean egoteko ere badituzte beraien meditatze moduak: begiak zabal-zabalik mantra berbera errepikatzen dute igandero aiaiaiai!! Uuuuuuuuuuu. Barreak ere egin ditugu norbaiten sufrimendua dela-eta, badakigulako ez direla serio hartu behar futbolaren goraberak. Baina kontutan hartu ekipozaleak benetan sufritzen duela ekipoak galtzen duenean. Neurrigabea dela? Ziur. Irabazten duenean ere, besarkada, txalo eta irrifarreak neurrigabeak izan daitezke, baina pozik dauden bitartean...

P.D: Bal al dakizu Franco izan zela partiduak telebistan botatzea erabaki zuena? Zertarako? Gaur egun bezala, jendea entrenitzeko, nola ez.

ZOZOAK BELEARI...



MIKEL CORNEJO

Ibane xalao!

Futbola? Zer zen hori...? A, bai! Modelo itxurako 22 tipo zelai batean baloiaren atzetik! Bai, batzuen izenak ere jakin, badakizkit, txutxumutxuen programetan sarri azaltzen dira-eta. Nola ez dut ba jakingo, astelehenetako egunkarien erdia betetzen dute! Tabernan asteburuetako hipnosi kolektiboaren misterioa!

Bai, ezagutzen dut futbola, eta azkenean gustatuko ote zaidan beldur naiz, Ibane. Partida ikusten ari direnekin batera "uf" eta "aiii" esateko bidean nago eta, nik esatea gaizki dagoen arren, tonu egokia hartzen ari naizela esango nuke. Gainera, bat bateko borroka zentzugabe eta komikoak ere badaude tartean, eta konturatu al zara nola besarkatzen diren golak ospatzeko?

Hori bai, zure taldeak galtzen duenean sentitzen duten tristura existenzial hori... Ez dakit ez ote den osasuntsuagoa kulebroietako emozio jarria...

Akaso, aitari kaso egin eta irabazten duten dirua ikusita, daramadan bizimodu petrala laga eta futbolarekin saikera bat egingo banu...

Beno, Ibane, besarkada "futbolistiko" bat eta kontuz ibili fronte siberiarrarekin!

P.D: Bihotzez eskertzen dizut zure aurreko postdatak zuen borondate ona, baina ez duzu pentsatuko zain nagoenik, ezta?

«Franco izan zen futbola telebistan botatzea erabaki zuena»

IBAN

«Modelo itxurako 22 tipo zelaiaren baloiaren atzetik!»

MIKEL



MAÑAK ERRAZAGO ENGAINATZEN DIRA EGUNDOKO GEZUR BATEZ
GEZUR TXIKI BATEZ BAINO

Adolf Hitler



Merkadilloari buruz

Elgoibarko EAJko Uri Buru Batzarrak prentsa ohar honen bitartez Udaltzarrak ostegunetako merkadilloa Sigmara eramateko hartutako erabakiarekin bat datorrela adierazi nahi du beriz ere. Horretaz gain, udaletxeko gure ordezkariak jasaten ari diren irain eta kontrako jarrerak salatu nahi ditu.

Elgoibarko EAJk herritarrei gogorarazi nahi die udaleko osoko bilkuran hartutako erabaki hau irizpide logiko eta arrazionaletan oinarritzen dela eta helburu nagusia leku publikoak hobeto erabiltzeko aukera izatea dela. Baina ostegunetako merkadilloa hainbat saltaile eta inguruko hainbat merkatarik ez du udalaren erabaki hau onartu nahi eta orain hilabete batzuetatik hona polemika sortzen ari dira gai honen inguruan.

EAJren iritziz uko egiteak ez dauka zentzurik eta are gutxiago merkatarik gutxi batzuk badira gehiengoaren izenean ari direnak. Ez dezagun geure burua engainatu eta ez gaitzaten engainatu azken hilabete hauetan konprobatu ahal izan dugun bezala protesta honen jarraitzaileak gutxi batzuk besterik ez baitira.

Duela gutxi, "Elgoibar Bizirik" izeneko plataformak aurkeztu du bere burua. Gure iritziz merkadilloaren inguruan sortutako istilu artifiziala besterik ez du adierazten honek, eta gobernu batzordeari kontra egiteko operazio politiko bati besterik ez dio

erantzuten. Hala ez bada, nolatan elkartzen dira PSE-EE, EB-IU, Einbiou eta sindikatuak euskaldun guztion artean aukeratutako sistema demokratiko eta instituzionalaren funtzionamendua zalantzan jartzea adieraziko lukeen erreferendum bat eskatzeraino?. Zertarako behar ditugu orduan udala eta udal ordezkariak erabakiak gutxi batzuen iritziz era asanblearioan erabaki behar badira?

Prest al daude merkatariek kokapen berrira joan nahi dutenen iritzia errespetatzeko (eta badaude batzuk) eta hauei lan egiten uzteko eskirioztat hartu gabe(DV 04-12-30)? Gure ustetan merkatariek sarritan aipatzen duten talante on horren adierazgarri izango litzateke hau. Eta honen aurrean non daude "ezker aldeko partiduak" eta sindikatuak? Non daude DENON interesak defendatzen dutela dioten horiek? Zoritxarrez errentagarriagoa dela dirudi zarata gehien ateratzen duenaren ondoan egotea.

Elgoibarko EAJk alderdi hauei autokritika bat egitea eskatzen die eta bertan behera uzteko beraien eskaera krispazioa eta tentsioa besterik ez baitu sortzen. Hemendik aurrera merkatariek

Sigmara joan eta gure herritarrek hain gogotsu espero duten merkadilloa erreperatu behar dugu eta behin han kokatutakoan mehatxuak eta irainak bukatzen badira prest gaude edozein hobekuntza edo beharrei erantzuteko. Baina mesedez buka dezagun erosketak egiteko 200 edo 300 metro ibiltzea sortzen ari zaigun eztabaida faltsu honekin.

Azkenik, gure konfidantza osoa adierazi nahi diogu behin eta beriz EAJ-EA taldeari.

**ELGOIBARKO EAJREN URI BURU
BATZARRAREN**

Eskerrak

Aurreko asteburuan ur ugari agertu zen Leku-Eder-eko garajeetan. Dirudienez, alboan dauden obretatik sartu omen zen. Igandea zen eta Udaltzainek jo genuen egoera konpontzeko laguntza eske. Udaltzainen jarrera eta jaso genuen laguntza eskertzeko idatzi ditugu lerro hauek.

ANTON AZPIAZU eta JUANJO BASTARRIKA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitateak: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **ZUZENDARIA** Jaxone Osoro **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MARKETZAILERIA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILERAK** Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Garosiza, Amaia Garrotxategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmuzaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Umuzuno, Unai Villena, Alaitz Vives **ESKERRA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Getxo Koop. E. **TRADA** 4.300 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Alundiak diruz lagundutako aldizkaria.



TXALOAK



Guraso talde batek **Herri Eskolako irakasleak eta Atxutxiamaiak Aisialdi Taldea** txalotu nahi dituzte ate irekien egunean egin zuten lanagatik: "Eguraldiak batere lagundu ez zuten arren, umek eta gurasoek oso ondo pasatu zuten eguna. Berriro ere lan bikaina egin zenuten. Jarraitu horrela".

Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako antolatzaileek parte hartu zuten dantzariak txalotu nahi dituzte: "**Zorionak Elgoibarko dantzari**ei herritarrei horrelako une atseginak eskaintzearen. Egindako lanagatik merezitako txaloak jaso zituzten. Bestalde, **eskerrak eman nahi dizkiegu Txistulariei**, jo ta ke aritu zirelako bi saioetan. Eta batez ere, Herriko Antzokira hurbildu zineten guztioi eskerrik asko, txalo eta animoak behar izaten baitira horrelako ekintzetan.



KEXAK

Aita Agirre kaleko bizilagun batek esan digunez, **jende askok gure portal aurrean aparkatzen du autoa**: "Etxe berrien garaierako sarrera gure portal aurrean egin dute. Kalea berri eta espaloia kendu egin dutenez, jendeak autoa bertan aparkatzen du, hormaren ondoan, oinezkoentzako pasabidea oztopatuz. Umeen kotxearekin edo erosketa karroarekin pasatzea ezinezkoa da. Mesedez, errespetatu gure espazioa, bertan bizi garenoi gauzak errazteko. Udaltzainei arazo hau konpontzeko eskatuko nieke".

Errotaberri kaleko bizilagun batek esan digunez, **beraien kaleko zabor kontenedoreen pareko baldosa bat kili-kolo dago**: "Kale berria egin dute, baina zabor kontenedoreen pareko baldosa bat ez dago lurrari ondo itsatsita. Kili-kolo dago, eta euria egiten duenean, baldosa hori zapaltzen bada, goitik behera zipriztintzen gara. Mesedez, dagokionak jarri dezala baldosa hori behar den moduan".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12



JOSE *pinturak*
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

Iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15



URRUZUNOREN Luma

Zinema

Lehengusina txikia ezin sinetsita zebilen hamar pantaila eta gehiago biltzen dituzten zinema-aretoak daudela eta orain bi aste ezin ahaztuzko bidaian murgildu ginen hiru lagun. Hiru lagun, mundua deskubritzeko. Txangoak bazituen zenbait ñabardura. Batetik, haurrentzat egokia zen film bat aukeratu behar genuen, eta bestetik, eta ezinbestean, pantailan emandakoak euskarazkoa behar zuen izan. Lehenengoa bete genuen nola edo hala, baina bigarrenak eman zizkigun lanak. Han eta hemen jardun nuen galdezka, itzulpen zerbitzua zuen multizinema baten bila, baina alferrik. Iritsi zen igandea, eta joan ginen Gipuzkoako hiriburura. Betidanik eman dit arreta euskara hutsean mintzatzen den haur batek inguruan unibertso oso bat, hutsik eta atal herrenik gabe, eraiki dezakeela ikusteak. Mira egiten diot, mundu korapilatsu honetan lore artean bizitzeko ahalegina egiten duenari. Aretoak bete zituen haren itxaropenak, ez horregatik filmak. Kontua muturrera eraman nahi dudala? Ez horixe. Ikaragarri ondo pasatu genuen, eta amaieran Garazik hau esan zidan: "ez dut filma ulertu, baina polita zirudien."

Ainhoa Lendinez

[ZORTZIKO TXIKIAN]



IÑAKI RAIGOSO

HERRIKO ANTZOKIKO
LANGILEA

- **Film batean, edukia ala efektu espezialak?**
Edukidun filmeak nahiago, eta efektuak baditu, hobe.
- **Pentsarazteko filma?**
Farhenheit 9/11.

- **Denbora pasatzeko?**

"Hero" edo "House of Flying Daggers" adibidez, arte marziazalen inguruko akziozko filmak dira.

- **Woody Allenen elkarrizketak ala Matrix?**

Momentuaren arabera, baina biak daude ondo.

- **Miloi bat dolar balio duen neskarik ezagutzen?**

Ezagutzen ditudan guztiek balio dute! Zine izarren artean aukeratzekotan, Catherine Zeta-Jones edo Scarlett Johansson (Hillary Swank aparte, noski)

- **Peter Pan-en konplejorik bai?**

Baliteke piskat edukitzea, eta galtzen dudanean, akabo.

- **Elgoibarko merkadilloari buruzko film laburra sarituko al lukete Oskarretan?**

Film laburretan ez dakit, luzerako doan arazoa baita.

- **Zein pelikulako abestia aukeratuko zenuke zure bizitzaren banda sonorerako?**

"Hakuna Matata", "Lehoi Erregea" filmekoa

- **Porno-star-ek diru asko irabazten omen dute. Bizimodu erraza?**

Ez dakit, baina ziur ez dela erraza. Agian atsegina bai.

komikia



Kokoe 007

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Eskolia»

Plaza Txikiko eskolan ibilli nitzan ni. Gerria txarra izan zan, baiña gerra osteko erregimena txarragua. Harek bialdu ziguzen txakurrak gogorrek ziran. Don Felix Ros zan gure maixua, eta gogorra zan, fatxa bat, eta asko jotzen zigun. Euskera etxakon gustatzen. Orduan erderaz egin bihar zan, eta guk euskera mantendu dogu, etxian egitten gendulako.

Lehen ikasle danak batera i k a s t e n g e n d u n , edadia ez zan kontuan hartzen, oin bezela. Ez gendun lekurik ere eukitzen, txikixenak lurrian jarritta egoten giñan. Eskolan jende gaizto asko ezagutu gendun. Maixuakin ondo geratzeko edo, maixuari esan egitten ziuen guk euskeraz egitten gendula, eta gero jo egitten zigun; askotan kastigauta egoten nitzan euskeraz egittiagatik.

Eskolan ez gendun gauza askorik ikasten, matematika apur bat, irakurri

eta dotriña. Hori sagraua zan. Beti errezatzen egoten giñan, "Cara al sol" eta "Legionario" kantatzen.

Lehen neguak oso gogorrek izaten ziran, eta gure aitta zanak aroztegixatik egurra ematen zigun eskolan sua egiñ, eta pixkat epeltzeko. Ta gure maixuak gabetan bere etxera eruaten zaban; guk etxetik ikusten gendun, baiña ezin gendun kontau. Gero, berriz aittana bialtzen zidan egur g e h i x a g o eskatzera, eta, maixuak neri ez jotzeko, aittak, amorrus bazan ere, eman egitten zidan.

Gerora, maixu berrixa etorri zan Zegama aldetik, eta guretzako sekulako kanbixua izan zan. Harekin eskolan sartutakuan "egun on" esatiakin nahikua zan. Ez kantau, ez erreza, eta ez ezer. Ez zigun jotzen, eta oso ondo erakusten zaban. Dotriña kontuak elizan ikastiaren aldekoa zan. Guretzako reboluziua izan zan, 180^º aldatu zan.



[GURE BERBAK]

Eufemismuak

Batzuek galdetuko dozue zer demonio dan berba hori. Ba, zeozer aittatzia, esatia komeni ez danian erabiltzen dittugun ihesi-berbak dira. Itzulunguruz-edo saihestu egitten dittugu tabu moduko berba batzuk: esatia komeni ez dan berba horren orde erabiltzen dira eufemismuak (jatorriz, 'ondo berba egitten dabana', 'zorte txarra dakarren berbak esaten ez diituana'). Hona Elgoibarren jaso diittuten batzuk:

- Orduan 80 urte zauken, eta horretako zenbatek ipiñiko zittuen heguak azken urtietan! (= hill)
- Oñ aprobetxau, hankak luzatu eta gero alperik da eta! (=hill)
- Nesta txikixetara juatia gustatzen jako golfuorri! (=prostitutak)
- Lanak aurretik egin diittualako ezkondu bihar da Maria. (=haurdun geratu)
- Zintzo portau hadi, gero, hor goiko hori akordauko dok bestela eta. (=Jaungoikua)
- Gizonen etxian bonbia jari zeben urte haretan. (=Guadua Zibillen kartela)
- Asko ugaldu dok aspaldixan gaixo txarra. (=minbizixa)
- Brometan moduan esan nion: "(Jo)ño, ez dok merkia!". (=Koño)
- Dedios, ez dok giro aspaldixan elur honekin! (=Redios)

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2005eko otsailaren 1ean, 81 urte zituela hil zen

Te resa Martinez Ballegaren

(Agripino Torresen alarguna) sendiak,

bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,

hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



MORKAIKO M.E.

MENDIA ETA HERRIA BAT EGINIK

Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatzen dituen irteerak barrutik bizi nahi izan ditugu aste honetako erreportajearen. Mendia eta parranda uztartu ziren azken irteeran ia 100 lagunek parte hartu zuten eta arrakasta hau ikusirik Morkaikoren irteeren berri jakin nahi izan dugu. Elkarteko lehendakariarekin, Aitzol Arriolarekin, berba egin dugu.

Eguna euritsu esnatu zen joan zen zapatuan, otsailaren 19an. Aitzitik, 98 lagun aurkeztu ziren Plaza Handian, izena emandako gutxik egin zuten huts. Autobusean sartu eta kapitalera! Kursaal parean hasi ziren oinez eta Gros auzoa atzean laga ostean, Donostiako parke naturalik garrantzitsuenan, Uria mendia dagoen eremuan, barneratu ziren itsasertzeko bidea eginez Pasai San Pedrorra iritsi arte. Ibilaldi honek paisaia ederrak eta harigarriak eskaintzen dizkio ibiltariari; itsasoa, zerua eta lurra batzen baitira. Tamalez, euritakoak eta aterkiak izan ziren nagusi zapatuan euri lanbroaren erruz. Eguraldiak ez zituen mendizaleak kokildu, ordea, eta 3 ordutan burutu zuten bidea.



AITZOL ARRIOLA

Presidentea



«Giro eta koadrila ezberdinetako jendea

• Nolako irteerak antolatzen ditu Morkaikok?

Hilean behin irteera bat antolatzen dugu. Aurten esaterako, 11 irteera egitea aurreikusten dugu, Elgoibarko Itzulia, Finalista Eguna, Karakatera Igoera, Argazki Lehiaketa eta beste zenbait gauza antolatzeaz gain, noski. Irteera guztiak ez dira tankera berekoak izaten. Batzuek egun batekoak izaten dira eta asteburu osorako beste batzuek. Denen gustu eta mailarako irteerak egon daitezzen saiatzeko gara. Urtean behin mendia eta parranda

uztartzen dituen irteera arrakastatsu bat antolatzeko ohitura ere badugu.

• Zer jende moeta joaten da Morkaikoren irteeretara?

Denetarik dago eta adin guztietakoak, baina 25 urtetik beherako gazte gehiago etortzea gustatuko litzaiguke, hor baitago etorkizuna eta erreleboa. Dena dela ez gara kexu, azken laupabost urteetan jende askok hartu baitu parte irteeretan.

• Edozein joateko modukoak al dira?

Batzuek gogorxeagoak izan arren, denentzat moduko irteerak daude. Ez dago

Irteerako bigarren txanpa falta zen oraindik. Kanpotik nahikoa busti ostean, barruak Hernaniko Otsue Enea sagardotegian bustitzea, alegia. Arropa zikuak aldatu eta elegante-elegante abiatu ziren autobusez sagardoaren hotelekin zuten zitara. Jabeak leku gutxi laga ziela-eta sardiñak latan moduan egon zirela aipatu digute, baina giro onak oztopo guztiak gainditu zituen eta trikiti doinuekin dastatu zuten aurtengo sagarraren zukua.



2005eko AKTIBITATEEN EGUTEGIA

- Martxoak 19
Araia-Aratz-Olazti
- Apirilak 24
Entziako Mendiak (Legaire)
- Maiatzak 15
Elgoibarko Itzulia
- Maiatzak 29
**Ibilaldia 2005
(Elgoibar-Durango)**
- Ekainak 5
Finalista Eguna
- Ekainak 18-19
**Ansoneko Mendiak.
Mendia + rafting**
- Uztailak 16-17
Europako Mendiak
- Irailak 24-25
Pirineoak. Lescun-Linza
- Urriak 2
**Kilometroak 2005.
(Elgoibar-Arrasate)**
- Urriak 9
Uitzi-Ireber-Eratsun
- Urriak 29-1
Palentziako Mendiak
- Azaroak 19
Karakatera igoera
- Abenduak 16-23
Argazki Lehiaketa

ezagutzen da Morkaikorekin»

lñurrategi edo Juanito bat izan beharrik Morkaikoren irteeretara etortzeko. Gainera, berezitasun bat dute gure irteerek: asko trabesiak edo zeharkaldiak direla, alegia. Norbera bere kasa joanez gero zaila da zeharkaldiak egitea eta guk aukera hori eskaintzen dugu.

• **Beti jende berdina joaten al da irteeretara?**

Irteera motaren arabera izaten da, baina batzuk fijoak direla esan daiteke, beste batzuk noizean behin etortzen direnak eta azkenik irteera bat edo

bestera animatzen direnak. Hortaz, badakizue, Euskal Herriko mendi eta inguruetaz lagun giro onean gozatu nahi izanez gero, hurrengo irteeran ikusiko dugu elkar.

• **Zer giro egoten da?**

Giro jatorra egoten dela uste dut. Gainera, giro eta koadrila ezberdinetako jendea ezagutzeko aukera ematen du. Aurrez bistaz bakarrik ezagutzen duzun herriko jendearekin erlazioa sortzeko tresna da askotan Morkaiko, mendian giro berezia sortzen baita.

[PROTAGONISTA]



Fausto Vitores

Fausto Vitores El Correo Español egunkariko lehenengo korrespontsala izan zen Elgoibarren. 60ko hamarkadan hasi zen kazetari lanak egiten, eta 20 urte baino gehiago aritu zen lan honetan. Elgoibarko kultura, politika, kirola eta bizimoduari buruzko makina bat kronika sinatu zituen gizon honek.

Honetaz gain, Sigma enpresan egiten zuen lan kalitate eta erosketa arduradun bezala. 1984. urtean jubilatuta zen, eta urte berean utzi zion gure herriko korrespontsalaritzari. 84 urte zituela hil zen Fausto Vitores elgoibartarra joan zen otsailaren 14an.

[NOTIZIA]

Elgoibartarren %58,12ak baiezkoa eman zion Europako Konstituzioari

Botoa ematera joan ziren elgoibartarren erdiak baino gehiagok baiezkoa eman zion Europako Konstituzioari. Guztira, elgoibartarren %58,12ak (2.155 pertsona) eman zuten baiezko botoa. Ezezkoaren alde, bestalde, herritarren %39,02a (1.447 pertsona) agertu ziren.

Honekin batera, baliogabeko 43 boto izan ziren, eta 106 lagunek txuriz botatu zuten. Guztira, 3.751 herritarrek hartu zuten parte Europako Konstituzioaren gaineko erreferendumean.

%58,23ko abstentzioa

Estatu osoan bezala, elgoibarren ere abstentzioa izan zen hauteskundeetako protagonista nagusia. Elgoibarko erroldaren



%58,23ak ez zuten joan zen igandean, otsailaren 20an, Europako Konstituzioari buruzko erreferendumean parte hartu. Guztira, boto eskubidea zuten 5.230 elgoibartarrek ez zuten botorik eman.

Aipatu beharra dago, Demokrazian gaudenetik ezagutu den abstentzio maila handiena izan dela hauteskunde hauetan.

[ZENBAKIA]

3.780.611

Udalak 2005eko aurrekontuaren %25a inbertsioetarako erabiliko du, 4 eurotik 1, hain zuzen ere. Guztira 3.780.611 euro. Besteak beste, Gabilondo

bidea lurperatu, Santa Anako errotanda moldatu, Mintxetako igerilekuetako aldaketak egin, jolas parkeak berritu eta haurtzaindegia konponduko dira.

asteko [ARGAZKIA]



Elurra mendian eta haize hotza herrian, dio esaera zaharrak. Oraingoan horixe izan dugu Elgoibarren. Mendian bai, baina kalean elur gutxi ikusi dugu elgoibartarrok. Hala ere, hotza sekulakoa nabaritu dugu egun hauetan. Termometroak izugarri jaitsi dira, eta astearte iluntzean 0º markatzen zuten. Aurtengo neguan bigarren aldiz iritsi da gure artera fronte siberiarra, eta denok dardarka eduki gaitu. Alde onak ere baditu elurrak, paisaje benetan politak ikusteko aukera izan baitugu.

Mendaroko Ospitaleko langileek greba egin zuten atzo, otsailak 24



Lan baldintza duinagoen alde, Osakidetza langileak greban daude joan den otsailaren 17tik. Grebak zonaldeka egingo dira, eta atzokoan tokatu zitzaion Mendaroko Ospitalari. ELA, SATSE eta SME sindikatuek deitutako greba hau, apirilaren 22ra arte luzatuko da, gauzak lehenago konpontzen ez badira. Momentuz zazpi egun desberdinetarako egin dituzte greba deialdiak, eta akordiorik lortzen ez bada, apirilaren 22an greba orokorra egingo da. Sindikatuek soldata igoera eta langileen aintzinasuna onartzea eskatzen dute, besteak beste.

Tirabira handiak negoziatioetan

Sindikatuek eta Jaurlaritza ez dira akordio batera iritsi. Hala ere, greba egunetarako zerbitzu minimoak adostu dituzte. Honela, Gorka Sarasola Mendaroko Ospitaleko Gerenteak esan digunez, "jai egunetako langile kopuru berbera aritu zen atzo lanean, eta larrialdiak eta gaixotasun onkologikoak bere osotasunean erantzun ziren".

Sindikatu eta Jaurlaritzak oso iritzi desberdina daukate grebaren eraginaren gaietan. Sindikatuen ustez, eragin nabarmena izan du, Jaurlaritzak dioenez, ordea, erantzuna oso txikia izan da.

Jasone Osororen Tentazioak liburua antzezlan bihurtua



Jasone Osorok 1998an argitaratu zuen Tentazioak. Desioak, pasioak eta gizakien arteko harremanak azaltzen dituzten kontakizunak, eta Korapiloak liburuan agertzen den beste ipuin pare bat bildu eta antzezlan sortu du Antón Luku antzerkigileak. Otsailaren 17an eta 18an, Donibane Garaziko antzokian estreinatu zen, Lizeo ikastetxeko hamar ikasle antzezlea. Antzokia lepo bete zen bi egunetan. Jasonek esan digunez, "egokitzapen polita egin du Lukuk, dekoratu minimalista batean, Tentazioak liburuak agertzen duen giroa primeran islatuz". Ea aukerarik dagoen inguruotako antzokietan ere ikusi ahal izateko.

[MOTZ-MOTZIAN]

Bilboko manifestaziorako autobusa

18/98 + plataformak antolatua, manifestazioa izango da bihar, larunbata, Bilbon, arratsaldeko 17:30ean La Casillatik hasita. Aipatu manifestazioan aspaldian Euskal Herriko giza eskubideen kontrako etengabeko erasoak salatu nahi dira. Elgoibartik autobusa aterako da joan nahi duten guztientzat, arratsaldeko 16:00etan Plaza Handitik.

Udal Liburutegia

Udal Liburutegiak ekimen berri bat jarriko du martxan aurten irakurzaletasuna suspertzeko kanpainaren barruan. Oraingoan bazkideentzako zozketa bat antolatzea erabaki dute. Liburutegiko bazkideek liburu bat bueltatzen duten bakoitzean, paper batean galdera batzuk erantzun beharko dituzte, izen-abizenak, liburuaren izenburua, eta gustukoa izan duen ala ez azalduz. Fitxa guztien artean, apirilean izango diren antzerki saioetara joateko 2 sarrera zozketatuko dira, bai umeen saiorako eta baita helduen saiorako ere.

IMHn langabetuentzako ikastaroak

2005. urteari begira, langabetuentzako ikastaro desberdinak antolatu ditu IMHk. Ikastaro hauek Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak subentzionatzen ditu eta Erreminta Makinaren munduarekin zerikusia izango dute. Ikastaro batzuen datak zehaztu gabe daude oraindik, jendeak izena eman ahala zehaztuko dira-eta.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 74 41 32 (Eli) telefonora deitu daiteke.

Inkesta

Lehen sei hautagai politikoaren artean hiru emakumezkoak izan behar dira legez

Gizon-emakumeen berdintasunaren onerako izango al da emakumeen presentzia derrigortzea politikan?

OIHANE EPELDE

Langabetua

27 urte



“Ez. Politikan politikarako balio duen jendea sartu behar da, ez da kontuan hartu behar emakumea edo gizona den, onena hartu behar da.”

PATRICIA CABELLO

Etxekoandrea

38 urte



“Bai. Emakumeok denetarik egiten dugu, eta politikarako ere balio dugula erakutsi behar dugu. Emakumeak boterera eta agintera iristeko ondo dago lege hori.”

MIGEL ANJEL VELA

Proiektista

35 urte



“Nik uste dut alderdi politikoaren zerrendetan gaitasuna duten pertsonak egon behar direla, gizona edo emakumea den kontuan hartu gabe.”

AMAIA ARANZABAL

Errepresentantea

45 urte



“Ez, bakoitzaren gaitasuna eduki behar da kontuan. Posible da emakume gehiago egotea zerrenda batean gehiago balio dutelako. Ez da %50 izan behar legez.”

[BAI ala EZ]

Egiten al duzu ezer kutsadura gutxitzeko?

BAI %78

“Behar ez direnean argiak itzali, behar baino kopia gehiago ez atera, alde batetik erabilitako papera berrerabili, txorrotak itxi, ahal denean autobusez edo trenez ibili, hondakinak sailkatuz bota... Horrelakoak berez ateratzen zaizkit jada. Gehiago egin behar dugula uste dut, hala ere.”

EZ %22

“Esate baterako, lanera joateko auto gehienetan bi lagun baino gutxiago ikusten da! Ez gara pentsatzen hasten "bizi kalitatea" deitzen dugun hori lortzeko ze energia gastu behar den. Soluzio bakarra energia kontsumoa murriztea da, baina hori egiteko kapaz ez gara.”

Datorren asterako....

**Tenporen arabera, Aste Santu polita izango dugu.
Sinisten al duzu tenporetan?**

Erantzunak: barren@elgoibarkoizarra.com edo Barreneko postontzian.

[GOMENDIOA]



Idoia Martikorena

SANATANA DRAMA

Yoga eskolako irakaslea

Arnasketa

Arnasketa arte bat dela esan dezakegu. Izan ere, arnasa ondo hartzen jakiteak gugan eragin dezake, bai maila fisikoan, bai emozionalean eta baita psikikoan ere. Are gehiago, bizitza kalitatea ere hobetzen du amasketak.

Gure bizitzaren iturria da. Oso pertsona gutxik irauin dezake bi edo hiru minutu arnasarik hartu gabe. Elikadura ere beharrezkoa da bizitzeko, baina egun asko pasa ditzakegu ezer jan gabe.

Yoga egiteko oso oso garrantzitsua da arnasa hartzen jakitea. Zenbait ariketen bidez

maila emozionala eta mentala hobeto ditzakegu.

Lehenik eta behin, biriken gaitasun osoa erabiltzen ikasi behar dugu.


- Arnasketa geratu (nahikoa da segundo bat), odola oxigenatu eta bizi-indarra gehitu egiten da.

- Birikak eta bronkioak garbitu egiten dira.

- Arnasketa erritmo geldo baina luzatuak ere onurak dakar.

Yogan dauden oinarriko sinismenean artean honela dio batek: "Arnasketa bizitza da. Arnasketa izpiritua da.

Ar n a s k e t a osasuna da".



+ [OSASUN GIDA]

MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 635 71 55 03

Astearte eta ostegunetan: 10-11:30/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Iñaki Rivero

San Bartolome, 28 • Tel: 943 74 32 90

Ostegunetan: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Oinberri

Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu,
deitu 943 74 37 04ra

Europar Batasunak Garrantzi Komunitarioko Leku bezala izendatu du Arno Mendigunea. Ibai Portu mendaroarrak Mendi Ingeniaritza ikasketak burutu ditu Madrilan, eta ikasketa amaierako proiektua Arno Mendiari buruz egin du. Gaur egun, Billabonako Fraisoro Nekazaritza Eskolan ari da lanean klaseak ematen eta baseritarrentzako dirulaguntzak gestionatzen. Berarekin hitz egin dugu gaurkoan, eta berak kontatu dizkigu Arno Mendiguneak dituen ezaugarri berezi guztiak.

IBAI PORTU ARNO MENDIGUNEAN ADITUA

«Nirea izango balitz bezala maite dut Arno mendigunea»



• Arno Garrantzi Komunitarioko Lekua. Zer esan nahi du horrek?

Gune honek dauzkan aberastasun naturalen ondorioz, inguruko lurraldeekiko desberdina eta aberatsagoa dela esan nahi du, bai bere baliabide naturalengatik, eta baita bere baliabide historikoengatik ere.

• Zein ezaugarri ditu Amok?

Amoko mendigunea 600 metro inguruko bost menditontor txikik osatzen dute. kostaldearen gainean dauden mendiak dira eta kareharizko mendigunea da. Artadi handi bat dauka Amok, Artez osatutako baso handi bat, eta oso ondo kontserbatuta. Hori da beharbada Amok daukan berezitasun garrantzitsuenak. Artea mediterraneoko zuhaitza da, eta arraroa da hemen honelako basoak sortzea. Amok ordea, mediterraneoko mendi batek bezala funtzionatzen du: Nahiz eta euri asko egin, daukan aldapengatik ura behera joaten da, eta daukan kareharriengatik, urak kanalak egin ditu, mendi barrura sartuz. Amoko lurrak ere ur asko xurgatzen du. Urteen poderioz urak kobazulo ikusgarriak egin ditu Amon. Hau dela eta, Arteak hemengoak diren zuhaitzei irabazten die.

• Fauna eta begetazio aldetik aberatsa al da?

Bai. Hasieran ezetz iruditu zitzaidan, Arteak bakarrik zeudela, baina oso aberatsa da. Orientazio desberdina dauka, eta gauza oso kuriosoa gertatzen da: Hegoaldera ematen duen aldeari eguzkiak gehiago jotzen dio, eta hor artea da nagusi. Baina handik 100 metrora, itsasaldeko korrontek ematen duen aldean, arteak konpetentzia dauka, eta bertako zuhaitzak daude, pinuak, pagoak... atlantiar begetazioa orokorrean. Animaliei dagokionean, urtero, martxo aldera Sahara Hegoaldetik umeak egitera etortzen da saizuri bat. Bestalde, kinper karakola ere bertan bizi da, Karakol oso arraroa da, oskola horizontala dauka. Intsektu oso arraro batzuk ere bizi dira bertan, karpikornioa esate baterako. Hau zuhaitzen enbor barruan bizi den intsektu handi bat da.

• **Mendi Ingeniaritza Ikasketak burutu dituzu.**

Bai, niri natura izugarri gustatzen zait, eta etxean ingeniaritza bat egin behar nuela esaten zidaten. Madrilen aurkitu nituen bi alor hauek lotzen zituen ikasketak. Sei urte eta proiektua egiten beste bat. Ikasketa luzeak, baina gustura aritu naiz.

• **Ikasketa amaierako proiektua Amori buruz egin duzu. Zein izan da ikerketa horren helburua?**

Arno mendigunearen gestio plana egitea izan da nire lana. Garrantzi Komunitarioko Leku guztiek, 6 urteko epean gestio plan bat eduki behar dute, eta lan horri ekin diot nik. Bi puntutan oinarritu naiz: Lehenengo Arnok daukan baliabide historiko guztia ezagutzera eman behar da, eta gero bertan dagoen balio guztia kontserbatu. Ez da erraza, Arnoko jabegoa oso banatuta dago-eta.

• **Zein balore historiko dauzka?**

Milaka mito eta historia ezkutatzen ditu Arnok. Urte askotan zehar, Mutrikuko arrantzaleentzako atalaia izan da Arnoko gurutzeta, bertatik bistaratzen ziren Mutrikura zetozen baleak. Itsasoarekin

«Mediterraneo
ko mendi
batek bezala
funtzionatzen
du Arnok»

lotutako istorio pila bat daude. Beste gailur batek "Bandera" izena dauka, arrantzaleek itsasoan ez galtzeko banderak jartzen zituztelako bertan.

• **Lan gogorra izan al da?**

Bai, oso gogorra, baina gustura egin dut, eta lotutako emaitzarekin oso pozik nago. Arnoko zuhaitz mordoak neurtu nituen banan-banan, argazki mordoak atera nituen, animaliei, landareei, txoko ezkutu asko topatu nituen, eta batez ere, asko ibili nintzen.



• **Zer izan da gehien gustatu zaizuna?**

Gauza asko, baina bat esatearren, Anotik behera aurkitu dudak txirristada antzeko kanala. Garai batean Arnoko egurra gauza askotarako erabiltzen zen: etxeak berotzeko, lokomotorak martxan jartzeko... egur hori saldu egiten zen. Baina egurra gailurrean zegoen, eta beharra herrian. Arnok sekulako aldapa dauka, eta ez zen erraza egurra han goitik kalera ekartzea. Kanal natural handi bat dauka Amok, eta gizakiak apur bat egokitu zuen, bertatik egurra errepideraino bajatu ahal izateko. Jende gutxi ezagutzen du, eta ikusgarria da. Arnoko arte zaharrak ere izugarri gustatu zaizkit.

• **Zenbat aldiz izan zara Arno mendigunean?**

Askotan, nik neuk ere ez dakit zenbat aldiz izan naizen Arnon. oso ondo ezagutzen dut ingurunea. Ikerketa lana egiteko ordu asko pasatu ditut bertan. Bertako animaliak eta baserritarren ostean, ni izango naiz Arno hoberen ezagutzen zuen mendarorarra. Asko maite dut, nirea izango balitz bezala sentitu eta maite dut. Emozionatu egiten naiz Amori buruz hitz egiterakoan.

• **Mendi arriskutsua al da?**

Bai. Badauzka leku batzuk ibiltzeko batere gomendagarriak ez direnak. Jende asko leku berriak deskubritzeko grinarekin edozein tokitan sartzen da, eta Arnok arrisku handia dauka. Mendaro aldera ematen duten gailur inguruetako zona bati Tranpaitz deitzen zaio, tranpadun haitzak direlako. Punta oso zorrotzak dauzka, eta lau metroko jausiera. Ikusi izan dira ahuntzak haitzetatik behera erortzen.

• **Zein esanahi dauka Arnok mendarorarentzat?**

Mendaroarren mendia traketsa moduan ikusten dute Arno. Zati asko sasiz beteta daude, eta gainera aldapa handia dauka. Mendi gogorra da, baina niretzako merezi du igoerak. Errekaren alde bateko mendarorarentzat, hau da, Azpilgoetakoentzat sinbolo bat da Arno, baina beste aldekoentzat ez.

GAZTIA NAIZ

Look aldaketa

Andoitz Agirregomezkorta


Mutil kirolzalea da Andoitz eta dutxatik edo igerilekutik sarritan atera behar duenez ez du ilea orrazten edo txukuntzen denborarik galdu nahi.

Hortaz, ile mozketa praktikoa bat desio zuen. Ilea koloreztatu edo mozketa arraroren bat egingo zioten beldur zela aitortu digu, baina oso gustura geratu da emaitzarekin. "Hain justu nik nahi nabana da, konplikazio handiegirik emango ez zidan ile mozketa.

Normalean makinilaz mozten didate ilea etxean, baina esperientzia polita izan da itxura aldaketa honetan parte hartzea".




Lehen



Orain

prozesua...

Fadek ileapaindegian



Ile ederra du Andoitzek eta ile mozketa modernoa egin digu, oso 'fashion'a baina naturala aldi berean. Realeko Igor Jauregik eraman ei duena.



Keinu bakar batekin orraztu daiteke dutxatik atera ostean, nahiz eta hobeto geratzeko gel edo antzerako zerbait eman daitekeen, ohiturarik izanez gero.



Ez da mutilei normalean egin ohi diegun mozketa perfektua edo klasikoa. Leku batzuetan luzeagoa da eta motzagoa beste batzuetan.

Zure itxura DOAN aldatu nahi al duzu? Jarri gurekin harremanetan: barren@elgoibarkoizarra.com



bituzik sexologi txokoa

Eli Moreno [Sexologoa]

HIESaren transmisioa

Azken urte hauetan HIESaren transmisioa bikote heterosexual nerabeen eta helduen artean zabaltzen ari da. Honek esan nahi du transmisioaren bidea koito harremana dela kasu gehienetan. Informazioa badago, baina nahikoa al da?

• HIESari beldurra galdu al diogu?

Bikotea ezaguna bada, konfidantza badugu, itxura ona badu eta harreman establea bada, HIESaren transmisioa ezin dela eman uste dugu. Gutxi pentsatzen dugu ezer txarrik gertatu ahal zaigula eta egoera guztiz kontrolatzen dugula konbentzita gaude.

• Ahaztu egiten gara arriskuaz, beraz.

Harreman sexualak izaten ari garenekoa exzitazio altua duen

momentua da eta une horretan ez ditugu ondorio negatiboak ikusten eta, gainera, ondorio txarrak egon daitezkeenik ere ez da ziurra. Hori dela eta, prebentzio neurriak hartzea oso zaila bihurtzen da.

• Publizitate kanpainak ere hor daude.

Informazioa badago, kanpainen bidez jarrerak eta jokabideak landu beharko lirakeke. Kondoia erabiltzeko ez da nahikoa jakitea erabili egin behar dela, hori bezain garrantzitsua edo ere

gehiago da erabiltzeko intentzioa izatea, poltsikoan eramatea, besteek ere preserbatiboarekiko jarrera positiboa izatea, erabiliz gero izan ditzakeen ondorio negatibo eta positiboak hautematea. Gaur egun ez dugu bikote bat bizitza guztirako izaten, gure bizitzako etapa desberdinetan bikote desberdinak izaten ditugu eta guztiakin izaten dugu konfidantza eta guztiak izaten dira denboraldi batean bikote estableak.



BEKAK FRANTSESA

Hezkuntza eta zientzia ministeritzak 405 beka banatuko ditu udan Frantziako ikastetxeetan frantsesa ikasteko. 20 urtekin beherako ikasleentzat da eta ikasturtea aprobaturata izan behar dute. Epea: martxoak 31. Informazioa: 902 218 500

IKASTAROAK

TALDE KOMERTZIALAK ZUZENTZEKO IKASTAROA
Gipuzkoako Marketing Klubak Talde Komertzialak zuzentzeko ikastaroa antolatuko du. Martxoaren 1ean eta 2an izango da, goizez eta arratsaldez. Informazioa: 943 27 27 22.

ENPRESAKO FINANTZA KUDEAKETA

Enpresako finantza-kudeaketako langile izateko ikastaroa: kontabilitatea, kontaplus, fakturazioa, ofimatika. Baldintzak: langabetua izatea. 479 ordu, martxoaren 7tik uztailaren 4ra. Epea: martxoak 4. Informazioa: 943 33 37 11

WEB ORRIEN DISEINUA

Miramón Enpresa Digitalak antolatuko, 16 orduko ikastaroa izango da, martxoaren 14an hasita. Epea: plazak bete arte. Informazioa: 943 00 09 99.

LANA GIZARTE LAGUNTZAILEA

Beasaingo Udalean Gizarte Laguntzaile bat kontratatzeko oposizioa. Baldintzak: Gizarte Laneko Diplomaturia edo Gizarte Laguntzailea, Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea: martxoak 8. Informazioa: 943 02 80 50

UDALTZAIN LAGUNTZAILE BAT

Zizurkilgo Udaltzain Laguntzaile bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Oinarriak: Eskola Graduaturia, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. B1 gidabaimena, 2. hizkuntza-eskakizuna. Epea: martxoak 8. Informazioa: 943 69 10 12

GARBIKETAKO LANGILEA

Antzuolako Udalean bide publikoak garbitzeko langile bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Oinarriak: Eskolatzeko Ziurtagiria edo baliokidea, 1. hizkuntza-eskakizuna eta B1 gidabaimena. Epea: martxoak 3. Informazioa: 943 76 62 46.

ASTIALDIKO BEGIRALEEN LAN POLTSA

Hernaniko Udalean, Astialdiko begiraleen lan-poltza 2 urterako. Oinarriak: Eskola Graduaturia, LH I edo baliokidea, 18 urtekin gora, euskara. Epea: martxoak 18. Informazioa: 943 33 70 29

HITZALDIAK

COACHING

Psi-Donostiak Coaching-ari buruzko seminarioa antolatuko du. Enpresa, hezkuntza, osasun eta giza arloetako profesionalentzat. Martxoaren 11n goizeko 9:30ean. Informazioa: 943 32 02 97.

BULLYING

Psi-Donostiak Bullying-ari buruzko seminarioa antolatuko du. Enpresa, hezkuntza, osasun eta giza arloetako profesionalentzat. Apirilaren 22an izango da. Informazioa: 943 32 02 97.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461

🕒 Asteartetik-ostiralera: 16:30-19:30

[BIXITAN]

Herri Eskolakoak BARRENen

Herri eskolako ikasleek BARREN bisitatu zuten duela zenbait aste. Gure astekariaren funtzionamendua azaldu genien. Azalpenaren ostean, beraien prestatuta ekarri zituzten hainbat galdera erantzun genituen, eta taldeko argazkia atera genien. Gaurkoan beraien dira ale honetako protagonista batzuk.



Ate irekien eguna ospatu zuten Herri Eskolan



Euria izan zen joan zen larunbatean protagonista nagusia, baina hala ere, giro onean ospatu zuten ate irekien eguna Herri Eskolan. Gaztelu puzgarririk ezin izan zuten jarri eguraldi txarra zela-eta, baina jolas eta ekintza desberdin ugari egin zituzten. Atxutxiamaikea Aisialdi Taldekoen

laguntzarekin, adin desberdinetako haurrentzako jolasak antolatu zituzten. Eguerdian bazkaria egin zuten, eta arratsaldean Patxin eta Potxin pailazoan emanaldia izan zen. Hasiera batean ume gutxi agertu bazen ere, azkenean jende ugari bildu zen, eta oso giro onean pasatu zuten eguna.

Herri Eskolakoak Lizarreta mendian izan ziren

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, Lastur eta Itziar artean dagoen Lizarreta (536 metro) mendira egin zuten irteera. 73 lagun joan ziren guztira. Esan digutenez erraz iritsi ziren gailurrera, baina bertan kontu handiz ibili behar izan ziren, Lizarreta harrizko mendia da, eta gailurrean ez zegoen guztiarentzako tokirik. Gero, ibilaldia luzatu zuten Arbil mendi aldera joanez. Pagatza baserria pasatu ostean, pistaz itzuli ziren Itziarko industrigunera. Bertan autoak hartu eta etxera itzuli ziren.



Elgoibar Ikastolako ikasleak "Berde-berdea" proiektuan eta Eibarko suhiltzaileekin bisitan

Elgoibar Ikastolako DBH 1 eta 2. mailako ikasleak Kutxak antolatutako "Berde-berdea" proiektuan parte hartzen ari dira. Helburua, ingurumenaren arloan gazteen parte hartzea sustatzea da. Urtariletik ekainera bitartean, bost gai landuko dituzte: Bioaniztasuna, atmosferaren kutsadura eta ozono geruza, ura, oporaldi ekologikoagoak eta klima aldaketa.

Bestalde, otsailaren 10ean 5. mailako ikasleek Eibarko "Arrate Suhiltzaileak" bisitatu zituzten. Suhiltzaileek lana nola egiten duten ikasteaz gain, bertako tresneriaz gozatzeko aukera izan zuten.

KORRIKA 14

Martxoaren 18an iritsiko da Korrika 14 Elgoibarrera

Martxoaren 18an, barixakuan, iritsiko da Korrika Elgoibarrera, eguerdiko 14:00etan, hain zuzen ere. Sigman egingo zaio ongi-etorria eta Debarantz jarraituko du bere bidea.

Martxoaren 10ean aterako da Korrika 14 Orreagatik eta Bilbon amaituko da hilaren 20an. "Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai!" izango da aurtengo lema. Izan ere, euskarak lortu badu gaur arte hizkuntza bizi eta modemo bezala irautea, 'euskaldun berri' izatea erabaki zuten edo duten hainbat eta hainbat herritarri zein kanpotarri esker izan da neurri handi batean. Horregatik, Korrika 14 honek, bide hori egin duten edo egiten hasi diren milaka eta milaka euskaldun berriri omenaldi apal baina zintzo bat egin nahi die.

Nola lagundu Korrikari

Laguntzeko modu asko daude. Diru laguntza bidez: kilometroak erosiz (320 bakoitzak), 12 euroren truke korrika laguntzailea eginez (laguntzaile direla adierazten duen pina eta Euskal Herriko



300 komertzio baino gehiagotan beherapenak eskuratzen dira), edota korrika lagun eginez, diru laguntza ematen duten enpresa edo saltegiei Korrika Lagun direla ziurtatzen duen txartela ematen zaie. Bestalde, Korrikako materiala erosiz ere lagun daiteke eta baita herrietako Korrika batzordeetan parte hartuz, Korrika Kulturalako ekitaldietara agertuz edo Korrika 14ko

petoa erosiz, besteak beste. Elgoibarren hainbat ekintza antolatuko dira Korrika kulturalaren barruan. Martxoaren 4an eta 6an bi antzezlan ekarriko ditu Markeliñe Antzerki taldeak Herriko Antzokira. "Lau Bihotz" izango da lehena eta umeei zuzenduriko "Ilgandetan Piratek jai" bigarrena. Otsailaren 11n, berriz, "Bide Ertzean" taldeak "Esan bare" azken diskoa aurkeztuko du Herriko Antzokian.



Maialen Solabarieta 3. postuan sailkatu zen Soinu Zahar txapelketan

Joan zen asteburuan jokatu zen IV. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa Elgoibarren. Guztira 56 dantzari igo ziren Herriko Antzokiko oholtza gainera, hauetatik 15 elgoibartarrak. Zapatuan A sailekoen txanda izan zen, 7-11 urte bitarteko neska-mutilena, alegia. Inñigo Etxebeste errenteriarra nagusitu zen mutiletan eta Jon Ander Garzia izan zen elgoibartarririk onena. Neskei dagokionez, Lezoko Idoia Beresarte nagusitu zen eta Maialen Solabarieta elgoibartarra 3. postuan sailkatu zen. Bera izan zen posturik onena lortu zuen herritarra. Domekan, 11 eta 15 urte

bitarteko neska-mutilen txanda izan zen. Epaimahaiaren iritziz Alexander Arillaga iruindarrak egin zuen dantzan hobekien eta nesken mailan, Lezoko Garazi Lekuonak jantzi zuen txapela. Julen Condek mutiletan eta Dorleta Fernandezek nesketan jaso zituzten herritar onenari zegozkion sari bereziak. Liga eran jokatzeko den Gipuzkoako Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketari zegozkion saioa izan zen Elgoibarkoa. Mutilen mailako finalak Errenterian jokatu dira maiatzaren 21ean eta nesken finalak, berriz, maiatzaren 28an Legazpin.

CRISTINA CONDE eta **OLATZ TXURRUKA** PALA JOKALARIAK

«Entrenamenduetan mutilen aurka jokatu behar izaten dugu»



Olatz Txurruka (16 urte) eta Cristina Conde (15 urte) pala jokalariai dira. Oraintsu hasi dira kirol honetan, baina jadanik final bat jokatzerira iritsi dira. Tamalez ez da ohikoa pilotan aritzen diren neskak topatzea, batez ere adin batetik aurrera. Hortaz, nolatan hasi ziren eta nola moldatzen diren jakin nahi izan dugu, besteak beste.

👉 Noiz hasi zineten palaz jokatzen?

Duela urtebete eskas animatu ginen. Olatzek esku pilotan jokatzen zuen, baina esku pilotan neska gutxi aritzen dira eta arerorik gabe geratu zenez, palara pasatu behar izan zuen eta biok elkarrekin hasi ginen. Olatzek aurrean jokatzen du eta nik atzean.

👉 Non jokatzen duzue?

Hasieran Debara joaten ginen entrenatzera, hemen ez baitzegoen palako entrenatzailerik. Zapatu arratsaldero 16:00etatik 18:00etara entrenatzen genuen. Aurrez inoiz jokatu gabeak ginen eta hutsetik hasi behar izan genuen. Ondoren, gure entrenatzaileak Elgoibarko pilota arduradunekin berba egin zuen eta orain Ikastolan entrenatzen dugu Elias eta Torito entrenatzaileekin. Mutilen aurka entrenatzen dugu besterik ezean. Lagunak batzuetan joaten dira partidak ikusi eta animatzera, baina ez dute jokatzerik nahi izaten.

👉 Pala txapelketatan parte hartzen ari zarete jadanik, ezta?

Bai, Gipuzkoako Txapelketan parte hartu genuen. Gure lehen txapelketa izan zen eta finalera iritsi ginen. Erreterian jokatu genuen finala Hernaniko pilotarien aurka, baina 30 eta 25 galdu genuen. Pena eman

zigun finala galtzeak, baina polita izan zen. Orain Euskal Herriko Liga Txapelketan jokatzen ari gara. Bikote gehiago daude txapelketa honetan. Naparrak dira gehienak eta guk baino maila askoz hobea dute. Gainera, jubenil mailako lehen urtean gaude oraindik eta pilotari batzuek bi urteko alde ateratzen digute. Horregatik, sei partidutatik bakarira irabaztea lortu dugu oraingoz.

👉 Eta zuk Olatz, gustatuko al litzaizuke esku pilotan jarraitzea?

Esku pilotan jokatzen duten neska gehiago egongo balira jarraituko nuke, asko gustatzen baitzait.

👉 Gustuko frontoi bat?

Santestebanen, Iruña ondoko herri batean dagoena. Elgoibarkoak txiki-giak dira palaz aritzeko, gomazko pilotaz jokatzen baitugu eta bote handia egiten dute.

👉 Etorkizunean ba al duzue jokatzen jarraitzea asmorik?

Bai, noski. Gure asmoa poliki poliki ikasiz joatea da eta ia naparren mailara iristen garen. Euskal Herriko Liga Txapelketa amaitu ostean Bilbon jokatuko den beste batean parte hartuko dugu. Han, teniseko pilotekin arituko gara. Bestalde, Elgoibarko neska pilotan jokatzerira animatu nahi genituzke hemendik.

«Lehen txapelketan finalera iristek ilusioa egin zigun»

ALDAGELA BERRIAK MINTXETAN

781.000 euroko aurrekontua izango dute



Mintxetako igerilekuek aldagela berriak izango dituzte datorren udan. Duela gutxi onartu ziren 2005erako aurrekontuak Udal Plenoan eta aurrekontuko partida bat Mintxetako igerilekuko aldagela berriak egiteko bideratuko zirela erabaki zen, 781.000 euro, hain zuzen ere. Igerilekuarekin hasi ziren lanen bigarren fasearen barruan koka genitzake lanok. Aldagelen eraikuntza berriak 447 m² erabilgarri izango ditu. Barruko banaketari dagokionez, sarreran gizonetako eta emakumezkoentzako bainuak egongo

lirateke biltegi txiki batzuekin batera. Gizonezkoen aldagelak 94,50 m²ko zabalera izango du eta 92,30 m²koa emakumezkoenak. Era berean, ezinduentzako egokitutako bi aldagela izango ditu eraikuntza berriak: emakumeentzat (8,45 m²) eta gizonezkoentzat (6,60 m²).

Bainu eta dutxen guneak 126 m² izango ditu. Orotara, beraz, 22 dutxa, 24 pixatoki eta 18 konketa edukiko lituzke eraikuntza berriak. Hauetatik 4 dutxa, lau pixatoki eta 4 konketa ezinduentzako egokituta egongo dira.

Kirolari gazteen inguruko ikastaroa

Kirolari gaztearen osasuna, errendimendua eta portaera etikoari buruzko heziketa programa bat ospatuko da Eibarren martxoaren 7, 14 eta 21ean. Oreki Fundazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Debegesak antolatutako ikastaroa kirolariei, kirol arduradunei (entrenatzaile, laguntzaile eta zuzendariak) eta gurasoei zuzendua dago. Ikastaroaren helburua, berriz, kirolaren benetazko funtzioen sakontzea da. Honek fisikoki eta sozialki eragiten dituen onurak aztertuz. Ikastaroak errendimenduzko kirolak egiten dituzten gazteen kirol heziketa integrala jorratuko du eta osasuna, errendimendua eta portaera

etikoarekin erlazionatutako kontzeptu garrantzitsuenak azaldu eta eztabaidatuko dira. Informazio gehiagorako eta izena emateko Debegesara zuzendu (943 20 15 33)

Elgoibarko igerilarien emaitzak

Elgoibarko Igeriketa taldeko bi kidek Arrasateko Igeriketa Txapelketan parte hartu zuten joan zen zapatuan, otsailaren 19an, Arrasateko kiroldegiko igerilekuan. 200 metro estiloetako lasterketan 3'42"04 denbora egin zuen Josu Espillak eta 3'54"26 denbora Ainhoa Agirrek. Bi igerilariak 100 metro bizkar stiloan ere parte hartu zuten. Josuren denbora 1'49"34 izan zen eta 1'53"14 Ainhoak behar izan zuena

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Llodio 2 - Haundi 2 (3. maila)
Idiazabal 3 - Elgoibar 0 (1. erreg.)
Elgoibar 1 - Lagun Onak 1 (Jub.)
Oiartzun 2 - Elgoibar 2 (Kad.)
Elgoibar 0 - Antiguoko 11 (Inf.)
Elgoibar 3 - Almen 0 (Neskak F-8)
Lengokoak 4 - Elgoibar 0 (Inf. B)
Ilintxa 0 - Elgoibar 3 (Neskak)

XAKEA

Elgoibar 3,5 - Mutriku 0,5 (1. maila)

ARETO FUTBOLA

Astrikotz 3 - Kenci Elg 7 (Nazional B)
Bilkoin 6 - Lanbroa 4 (1. maila)
Toletxe Kafetegia 6 - Colegio Aleman 2 (Jub.)

PILOTA

Euskal Herriko Liga

Irurtzun 22 - Lagunak 6 (Jub. banaka)

Udaberri Txapelketa

Beloki 22 - Lagunak 17 (Nag. 1. maila)
Lagunak 15 - Bear Zana 22 (Nag. 2. maila)
Lagunak 22 - Lazkao 13 (kad. 2. maila)

ESKUBALOIA

Pagoaga Sanlo 13 - Ermua 16 (Kad. nes.)
Cometel Sanlo 14 - Ermua 9 (Jub. mut.)
Tecnomeca Sanlo 26 - Ald. Zarautz 18 (Kad. m.)
Leizaran 17 - Pneumax Sanlo 20 (Jub mut.)
Sanlo 28 - San Adrian 8 (Sen. nes.)
ANIT Sanlo 27 - BKL-CAF 16 (Sen. mut.)
Tecnifuelle 23 - Dam-Lea 24 (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 26

16:30 Haundi - Arenas (3. maila)
18:30 Elgoibar - Ikasberri (1. erreg.)

Domekia, 20

10:30 Elgoibar - Hemani (Inf. B)
12:15 Elgoibar - Gasteiz (Neskak)
16:00 Elgoibar - Aretxabaleta (Kad.)

ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

Udaberri Txapelketa

Barixakua, 25

22:00 Lagunak - Arrasateko (Nag. 1. maila)

Euskal Herriko Liga

Zapatua, 26

12:00 Lagunak - Aurrera 2 (Jub. nes. palaz)

ARETO FUTBOLA, Kiroldegian

Zapatua, 26

16:00 Kenci Elg. - Santurtzi (Nazional B)
17:45 Lanbroa - Azurki (1. maila)

ESKUBALOIA, Kiroldegian

Domekia, 27

9:00 Tecnomeca Sanlo - Aloña Mendi (Kad. m.)
10:30 Umobitza Sanlo - Bidasoa (Inf. mut.)
13:30 Sanlo - Euskalduna (Inf. nes.)

Merkatua

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

[LANA]

ESKAERA

- † Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 639 88 20 04
- † Mutila barran, sukaldean, arotz edo igeltsaritza lanetarako prest. ☎ 696 325 300
- † 30 urteko gizona lanerako prest. Harakin, kamioi gidari, sukalde lagun-tzaile... ☎ 615 00 83 46
- † Emakumea garbiketa, etxeko lanak egin, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 696 325 300
- † Emakumea elkarrekin garbitu, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699 60 91 90
- † Emakumea garbiketa lanak egin, haur edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 630 46 21 27
- † 19 urteko neska aste bukaeretan lan egiteko prest. ☎ 676 31 65 90
- † Neska goizez Elgoibar edo Eibarren lan egiteko prest. ☎ 645 72 38 00
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxeko lanetarako prest. ☎ 620 363 824
- † Soldadorea eta 2. mailako ofiziala, Elgoibar, Eibar edo Deban lan egiteko prest. ☎ 661 225 149
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxeko lanetarako prest. ☎ 660 92 75 66
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarrekin...), edo etxeko lanetarako prest. ☎ 600 28 27 93
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarrekin...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuk bame. ☎ 618 37 91 47
- † Erizain laguntzailea gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean, gau edo egunez. ☎ 686 226 274

ESKAINITZA

- † Ingeles-komertzial irakaslea behar da. ☎ 636 44 55 43
- † Kamareroa behar da. ☎ 943 74 10 12
- † Mutil euskalduna behar da asteburuetan barran lan egiteko. ☎ 670 654 921
- † Kamareroa behar da egunero lan egiteko. Kontratua eta oporrek. ☎ 652 77 82 60
- † Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ 635 75 16 42

[GARAJEAK]

- † Garaje marraduna alokatzen da Santa Ana 2an. ☎ 943 74 34 27
- † Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren, etxe berrien azpian. Berria, estreinatu gabea, urrutiko agintearekin. ☎ 943 74 02 68
- † Garajea salgai Pedro Muguruzan. ☎ 943 53 00 39/645 72 79 11
- † Garaje itxia salgai Madalan. 28m². ☎ 646 50 28 66 (arratsaldez)
- † Garaje itxia salgai Urasandin. ☎ 943 74 24 06
- † Garaje itxia alokatzen da San Roken. 34m². ☎ 943 74 17 02

[LOKALAK]

- † Gazte koadrila batek lokala edo garajea hartuko luke alokairuan. ☎ 650 39 65 83
- † Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ 678 118 695

[BESTERIK]

- † 76. urtean jaio eta ikastolan ikasitako ikasle ohiek 8. mailako afaria egingo dute martxoaren 12an. Interesatek 30 euro sartu kontu honetan: 3035 0007 25 007 1033927
- † Zinean giltz batzuk aurkitu genituen hilaren 30ean. Udaltzaingoan daude.
- † Urtilarilen 6an Trenbide eta Bernardo Ezenarro kaleen artean kamiseta terminakoa galdu nuen. Urdin iluna, Helly Hansen markakoa. ☎ 610 904 371

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai Mendaron, plazan. 3 logela, bi komun, jangela-egongela, sukaldea, ganbara. ☎ 676 81 46 97
- † Etxea salgai Urasandin. 90m². Dena kanpora begira. Terraza, bi komun, 3 logela, egongela. ☎ 943 74 08 26
- † Etxea salgai Sigman. Sukaldea, komuna, bi logela, egongela. Berritua. ☎ 943 74 27 60
- † Etxe berritua salgai Sigman. Prezio onean. ☎ 943 74 29 21/685 76 61 54

- † Etxe berria salgai Sorluzen. Komuna eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. ☎ 615 77 99 20

- † Atikoa salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna, trastero handia eta igogailua. ☎ 656 72 44 01

- † Etxea salgai Erdialdean. Berritua, gas naturala, berogailua, sukaldea, trasteroa. 74m². Kanpora begira. Salneurria adosteko. ☎ 615 78 44 15
- † Etxea salgai Errosario kalean. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela, 3 logela, komuna, despentsa, berogailu zentrala. Prezioa adosteko. ☎ 699 17 98 72/943 74 02 68

- † Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ 636 22 31 42

- † Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m². Dena kanpora. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia eta garajea. ☎ 687 23 58 39

- † Etxea salgai San Frantzisko kalean. Sukaldea, egongela, komuna, bi logela, despentsa. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezioa adosteko. ☎ 699 29 36 13

- † Pisu salgai Artehen (Inñiguez de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira, ganbararekin. ☎ 627 94 12 61

ALOKAIRUA

- † Logela alokatuko nuke Elgoibarren. ☎ 626 25 76 85
- † Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ 610 69 95 32
- † Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 670 25 78 04

- † Apartamentua alokatzen da Saloun. Novelty eraikuntzan. Ekipatua, aire egokitu, igerilekua, garajea, terraza. 24 orduko harrera. ☎ 629 98 98 99/943 81 42 38
- † Conilen (Cadiz) apartamentua alokatzen da. Bateles hondartza ondoan. Ekipatua. ☎ 680 44 26 68
- † Pisu hartuko nuke alokairuan. ☎ 627 60 34 38 (Maria)

[SALEROSKETAK]

- † Abuztuaren 9an Donostian izango den U2 taldearen kontzerturako sarre-rak ditut. Interesatek idatzi U2sarrerakditut@yahoo.es helbidera.
- † Citroen Xsara Picasso HDI salgai. 2003ko ekainekoa. ☎ 646 11 30 85
- † Rieju motorra salgai. Prezio onean, nahiko berria. ☎ 686 22 35 83/943 74 26 17
- † Sukaldeko eta egongelako altzariak salgai. Oso oso merke. ☎ 649 03 12 71
- † Phillips minikatea salgai. 3cd, 260 watt. 210 euro. Samsung bideoa salgai. 60 euro. ☎ 696 89 60 88
- † Renault Clio Dci autoa salgai. ABS, 2 airbag, direkzio asistitua, elektriko. 2002koa. 100.000km. ☎ 660 551 534
- † Aspiragailu industrialak salgai. 3 motore. Berria, merke. ☎ 615 79 50 12 (Andere)
- † Piragua salgai kubre eta palarekin. Txaleko eta txamarra opari. ☎ 653 716 306
- † Errepiderako bizikleta salgai. Winer, grupo campagnolo xenon. Urtebete. 400 euro. ☎ 639 312 388
- † Hozkailu-izozkailua salgai. 1,42m alturan/0,43 zabalera. Bi ate. Egoera onean. 72 euro. ☎ 943 74 32 46
- † Citroen C2, 1.4 autoa salgai. 2 urteko garantia. Merke. ☎ 943 74 23 63
- † Bikientzako kotxe silla salgai. Inglesina markakoa. (silla, grupo 0, zakuak, burbujak...) ☎ 636 12 95 43
- † BMW 330 D autoa salgai. Nazionala. Ondo zaindua. Beti garajejan. Extra aska. ☎ 943 74 00 36/609 494 128

[PARTIKULARRAK]

- † Ingeleseko klase partikularrek ematen dira etxean. ☎ 606 73 38 50 (Carlos)



Linazasoro7, 2. (estazio parean)
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)
jurdaneze@hotmail.com

- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehioak
- Parket-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldekak



Bulkatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

[AGURRAK]



† Pilar Ikastetxeko Haur Hezkuntzako irakasle eta ikasleen partez, zorionak **Esteban Gil**. Egun on bat pasa!



† Haizeak marea arrastaka daraman modu berean, zuk gu abandonatzen gaituzu zure nortasunaren bila. Bizitzaz gozatu!



† Zorionak **Axier** otsailaren 27an 2 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Naia, Jakes eta Maddiren partez.



† Zorionak **Leire Arillaga** hilaren 22an 12 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki Lorea eta Kristinaren partez.



† Zorionak **Ane Urain** otsailaren 23an 12 urte egin zenituelako. Lagunen, eta batez ere, Lorea eta Kristinaren partez.



† Zorionak **Maite Bollar** hilaren 27an 12 urte egingo dituzulako. Lagunen partez.



† Zorionak **Ane Iriguez** otsailaren 17an 12 urte egin zenituelako. Lagunen partez.



† Zorionak **Iker** otsailaren 28an 3 urte egingo dituzulako. Aitaxo eta anaia Gorkaren partez muxu mordo bat!



† Zorionak **Beñat** otsailaren 23an urte bat egin zenuelako. Familiakoen partez.



† Asko asko maite zaituzulako, 6 musutxo goxo eta mila kilo zorion **Txatxamatxalini!**



† Zorionak **Antxon** zure 7. urtebetetzean. Lagunekin eta familiakoekin ospa ezazu.



† Zorionak **Imanol** hilaren 28an 6 urte egingo dituzulako. Familiakoen eta lagunen partez.



† Zorionak **Frida** zure urtebetetzean. Irigo eta Mailalenen partez muxu handi bat.



† Zorionak **Abraham Bilbatua** otsailaren 26an 10 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



† Zorionak **Eider** otsailaren 24an 10 urte egin zenituelako. Gurasoen eta anaionen partez.



† Zorionak **Poxpolin Mari Sorgin** bihar, hilak 26, 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta batez ere, Nagoreren partez.



† Zorionak **Iker eta Ane** zuen hamargarren urtebetetzean. Familiakoen partez.



† Zorionak **Monse, Teresa eta Mari**. Familiakoen eta lagunen partez.



Giauto
GIPUZKOA AUTOAK

Otaola Etor., 27
943 202500 - EIBAR

Karobi Pol., 2/g
943 88 51 50 - OLABERRIA
clientes@giauto.es

AUTO BERA, MERKEAGO



Harrererako telefonos
902 345 225

www.chevrolet.es



Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



27 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
25	Etxeberría (Errosario)	Etxeberría	IBÁÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
26	Ibañez	Yudego	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
27	Ibañez	Ibañez	
28	Bidasolo	Bidasolo	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
1	Etxeberría (Santa Ana)	Etxeberría	
2	Fernandez	Fernandez	
3	Yudego	Yudego	
4	Zabaleta	Zabaleta	



[TELEFONOAK]

OSASUNA		BESTELAKOAK	
Anbulatorioa	943 03 26 10	BARREN astekaria	943 74 41 12
Larrialdiak	943 46 11 11	Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Planning-a	943 74 29 50	Kiroldegia	943 74 44 15
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85	Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
D.Y.A (anbulantzia)	943 46 46 22	Liburutegia	943 74 35 25
Gurutze Gorria	943 74 38 64	Musika Eskola	943 74 21 45
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Mintxeta	943 74 43 15
Odol Emaileak	943 74 39 36	Parrokia	943 74 08 42
		Postetxea	943 74 15 47
		Gazte Informazioa	943 74 14 61
		KZ gunea	943 74 88 28
UDALA		ADINEKOEN ETXEAK	
Euskara Zerbitzua	943 74 43 66	San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58	Zaharen Biltokia	943 74 05 26
Hirigintza	943 74 43 84	Eguneko Zentroa	943 74 45 65
Epaitegia	943 74 16 30		
Haziena	943 74 44 14	IKASTETXEAK	
Mendaroko Udala	943 03 32 82	Haur Eskola	943 74 21 41
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08	HHI (EPA)	943 74 08 80
Udaletxea	943 74 10 50	Herri Eskola	943 74 08 79
Udalizaingoa	943 74 13 94	I.M.H.	943 74 41 32
Debemen	943 74 40 67	Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
		•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
GARRAIOAK		Ikastola	943 74 44 41
Eusko Trenbideak	943 74 04 42	Pilar Ikastetxea	943 74 13 31
PESA (Eibar)	902 10 12 10		
Taxi geltokia	943 74 08 98		
Bizkaibus	902 222 265		



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiora. Azkena 21:55.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[25 BARIXAKUA]

19:30 I. BEREZIARTUA MUSIKA
 ESKOLAKO TALDE
 INSTRUMENTALEN KONTZERTUA
 Musika Eskolako auditorioan



SINOPSISIAK

«Alejandro Magno»



[3 EGUENA]

17:00 LABEKO ESMALTE IKASTAROA

Egur Arte tailerrean eman daiteke izena (Aita Agirre plaza z/g)
Martxoaren 23ra arte
Antolatzailea: Egur Arte Tailerra

19:00 ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

Emakume elgoibartarrek egindako lanak
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Martxoaren 15era arte
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

[4 BARIXAKUA]

22:15 ANTZERKI MUTUA

Izenburua: "Lau Bihotz"
Taldea: Markeliñe Antzerki Taldea
Herriko Antzokian
Haizea Emakume Taldearen laguntzarekin (Korrika kulturala)



ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Alejandro Magno»

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00-22:15
27, domekia: 19:00-22:15
28, astelehena: 22:15

«Polar Express»

27, domekia: 16:30
«Todo o nada» (Z.K.)
3, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Los Chicos del coro»

25, barixakua: 19:30-22:15
26, zapatua: 17:00-19:30-22:30
27, domekia: 17:00-19:30-22:30,
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«El vuelo del Fenix»

25, barixakua: 19:30-22:15
26, zapatua: 17:00-19:30-22:30
27, domekia: 17:00-19:30-22:30,
28, astelehena: 19:30-22:15
29, martitzena: 19:30-22:15
30, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Zuzendaria: Oliver Stone

Antzezleak: Colin Farrell, Angelina Jolie, Val Kilmer.

Historiako liderrik buruargi eta garrantzitsuenetakoa izan zen Alejandro Magnoren bizitza kontatzen du Stone estatubatuarren azken filmak. 25 urte betetzerako ezagutzen zen munduaren %90a konkistatu zuen. Soldadu greziar, mazedoniar eta ekialdeko herrialdetakoekin osatutako ejertzito boteretsua osatu zuen eta 35.000 kilometroko ibilbide odoltsuan imperio bat sortu zuen 8 urtetako epean. Historian ezagutu den inperiorik izugarriena osatu ondoren hil zen 32 urte bakarrik zituela.

«Todo o nada» (Z.K.)



Zuzendaria: Mike Leigh.

Antzezleak: Alison Garland, Jean Ainslie, Timothy Spall.

Penny, Phill, Cécile, Maureen, Donna, Carol eta Ron etxebizitza negargarrietan bizi diren auzokoak dira. Inolako itxaropenik gabe, inertiaren poderioz bizi diren gizasemeak dira. Motibaziorik gabe eta hobera egiteko aukerarik gabe bizi direnez, familia barruko harremanak, maitasuna eta elkarrenganako laguntasuna ez dira adierazten. Mike Leigh zuzendariaren filmak bi orduz murgilduko gaitu auzo honetako bizimodu triste eta kolorerik gabe.

Atzera begira



1965. urte inguruko erretratu zahar hau **Marina Colinak** laga digu. Ekainaren 12an aterata dago argazkia, Elgoibarko eliza aurrean. Egun honetan Mari Ezenaroren ezkontzarako despedida ospatu zuten. Gaur egun bezala, ordu hartan ere despedidak egiten ziren, baina, argazkian ikusten den bezala, oso modu desberdinean egiten ziren. Gaur egun ezkontzera doana mozorrotu egiten dute gehienetan, eta demaseko juerga egiteko ohitura dago. Garai hartan, begira nolako jantzi dotoreak eta orrazkerak eramaten zituzten emakumeek! Ziur gaude oso ondo pasatu zutela egun honetan. Gogora ditzagun zeintzuk diren emakume dotore hauek.

Goian, zutik ezkerretik eskumara: **Marina Colina, Pilar Juaristi, Arrate Zuazubizkar, Jaione Iriondo, Maite Azkona, Ana M^a Mugerza, Rosario Iriarte** eta **Ana M^a San Martin**.

Behean, eserita ezkerretik eskumara: **M^a Loren Gorostiza, Gloria Mugerza, M^a Len Iso, Mari Ezenarro, M^a Sol Arakistain** eta **Clara Larrañaga**.



URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91



ASEGURUAK



**CORDON
VILARCHAO**

DEKORAZIOA

Kargu eta baretu osatitara
Zaluen kolokazioa
Lakadak: egur, aluminio, P.V.C.
Pintara orekorta

San Roke, 7 behe
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modaleku
Tel. 943 740 570



GRUPO
INDUSTRIAL

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

AZKEN ETXEBIZITZAK salgai

Residencial Mirador
Santa Klara



Neinor

NEINOR **Azkoitia**

Julio Urquijo Etorbidea, 10

20.720 AZKOITIA

☎ **943 852 411 - 943 317 511**

- 3 logelako etxebizitzak eta
- 4 logelako duplexak behealde estaliarekin
- Terraza eta lorategi handiak. Garaje itxiak. Leku eguzkitsua hegoaldera begira eta bista panoramikoak.

ANTZERKI GESTUALA

4bihotz



Magiaz osatutako estetika duen ikuskizun komiko eta ironikoa da. Edozein parke, eserleku, zakarrentzi edo farolaren ondoan gerta daiteke. Maitale odol beroak, suizidak, biziodunak, mindutakoak... Bikoteak, zentzuzko bultzada batekin elkartrukatzen dira, edota apurtu ezinezko loturekin elkartzen dira.



Martxoak 4, ostirala
22:15ean
Herriko Antzokian



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA

Igandeetan,

PIRATEK jai



Martxoak 6,
igandea,
16:30ean

Herriko Antzokian

markeliñe



SAREA

14. korrika
kulturala



ni ere ball